

azpeitianzer?

udal aldizkaria



2017 otsaila
178. zenbakia



2017

ekonomia



enplegua



formakuntza



babes soziala



inbertsioak\$

aurrekontuak

20.031.082 euroko aurrekontu orokorra izango du Udalak; iaz baino %5 altuagoa



IZARRAITZERAKO ATEA

Esklaba eta Olatz artean
Izarraitzerako sarrera
izango den parkea
egiten ari da Udala



EKONOMIA INDARTZEN

300.000 euro banatu
ditu Udalak herriko
86 proiektutan

Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailletza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Parekidetasuna	943 15 79 28
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zaborteia	943 15 18 75
Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Baigera I eta II	943 81 44 64 II / 943 81 23 89
Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

Botika txandak

ALBERDI.

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Otsailaren 3, 7, 14, 21, 25 eta 26

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50

Otsailaren 1, 6, 11, 12, 17, 20 eta 27

BERISTAIN

Urbitearte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49

Otsailaren 8, 13, 18, 19 eta 24

EIZAGIRRE

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74

2, 9, 16 eta 23

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58

Otsailaren 4, 5, 10, 15, 22 eta 28

Ale honetan zer?

Denontzako herria 3

Kultura denen eskura 8

2017ko aurrekontuak 10

'Denon artean' 14

Azpeitia berdea 16

Eraikitzen 18

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Diseinua eta argazkiak:
EREKI, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.

Azpeitia ezagutzen



Inaxi eta Patxi pertsonaien bidez,
Azpeitiko historia ezagutzeko balioko
diguten herriko datu esanguratsuak
ikasteko aukera izango dugu tarte
honetan. Ezagutu Azpeitia, bere historia
eta ondarea!

'Sorginak'

Azpeitira ere heldu zen erasoaldi hori. Antza denez, German Ugarteakoa inkisidorea Azkoitia, Azpeitia eta Deba inguruetan ibili zen 1531 eta 1532 bitartean ustezko sorginak zigortzen. Badakigu, adibidez, 1531ko martxoan Donostira bidali zituztela Madalenen atxilotuta izan zituzten "sorgin" batzuk (haien mantenu gastuen agiria bada).

1564an "sorginen" gaineko beste berri txiki bat agertzen da Azpeitian; urte horretan epaitu zuten Maria Arroscaín. Emakume bera

berriz salatu eta zigortu zuten 1569an beilagile izatea leporatuta. 1621ean berriro aurkitzen dituzte "sorginak" Iraurgi haranean. Urte horretan Diego Idarragakoa jaunak probintziara ordezkariak bidali zituen herri gehien gehienetan sorginak zeuden kexua jakitera emateko; Inkisizioak haiek aurkitu eta zigortzen esku hartu behar zuen. Horri gehitu zion "se habían descubierto milagrosamente dos brujas muy famosas, que se hallaban presas en la villa de Azcoitia por el Comisario del Santo Oficio y que para promover su castigo iba personalmente a Logroño".

Balentina Agirre Elorza Plaza: lehen emakume izena kale izendegian

Injustiziarekin hautsi eta kale izendegian ere emakumeen presentzia bermatzeko lehen pauso garrantzitsua



Urtearrilaren 28an, Artztubia, Ildefonso Gurrutxaga eta Jose Arretxe kaleak elkartzen dituen plazari Balentina Agirre Elorza izena jartzeko ekitaldia egin zen. Bertan izan ziren Udal ordezkariak gain, Agirreren ahizpa eta hiru seme-alaba, beste hainbat senide eta herritar ugari.

Azpeitiko Udalak Emakume Mahaiarekin elkarlanean adostu zuen herriari justizia egiteko emakume izena ematea plaza horri. Azpeitiaren kale izendegiko lehen emakume izena da.

Eneko Etxeberria alkateak izena jartzeko ekitaldian harriez gain herriak sinboloz osatzen direla azpimarratu zuen: "Harriez gain, sinboloak behar dira herri bat eraikitzeko; sinboloek egiten gaituzte herriago. Eta Balentina bezalako sinboloak

ezinbestekoak dira". Izendapen horrekin injustizia bati bukaera eman nahi zaiola ere azaldu zuen: "2017an, herrian lehen aldiz plaza bati emakume izena jartzen ari gara. Lehen aldiz, emakume izena izango du plazak".

Agirreren bi balore ere ekarri nahi izan zituztela gogora, biekin bat egiten duelako Udalak: "Hezkuntzan sinesten zuen. Eta guretzat ere ezinbestekoa da hezkuntza herri baten etorkizunerako. Eta bizitzarekin zuen lotura ere azpimarratu nahi dut. Bizia ematen lagundu zien milaka herritarri, baina bere bizitza ere azken segundura arte bizitzen ahalegindu zen".

Abiatutako bide horretan, kale izendegian emakumeen presentzia handitzeko konpromisoa ere agertu zuen.

Emakumeen ahalduntzerako eskaintza

Otsailetik ekainera bitarteko ekintza eta ikastaroak, abian

Azpeitiko Udalak datozen hilabeteotan jabetza Eskolaren bidez (emakumeentzat) zein Emakume Txokoan ikastaro, tailer, zein herritar guztiei (emakume zein gizonei) irekitako ekintzak antolatu eta eskainiko ditu.

Jabetze Eskolak 6 ikastaro

Jabetze Eskolaren baitan 6 ikastaro antolatu dira emakumeentzat. Izen ematea otsailaren erdian bukatuko da, baina interesa dutenak plaza librerik ba ote dagoen kontsulta dezakete Udalaren Parekidetasun Sailean edo Emakume Txokoan.

- Ahalduntzea gorputza eta bio-dantzaren bitartez, Mentxu Arjonillak zuzenduta
- Autodefentsa feminista neska gazteen-tzat, Alaitz Mañesek zuzenduta
- Erotismoa eta auzoezagutza, Clara Wolframek zuzenduta
- Mendi orientazio ikastaroa, Patri Espinarrak zuzenduta
- Historiarako emakumeak, Leticia Martinez Alcocerrek zuzenduta
- Emozioak nola Landu, Pepa Bojok zuzenduta

Emakume Txokoan, herritar guztiei irekitako ekintzak

- 'Laura esaten zioten. Miren Odriozola-ren borroka' liburuaren inguruko tertulia, Iratxe Retolazak gidatuta
- Zaindu geure buruaz zaindu osasun jardunaldiak (bi saio), Kontxi Lopezek gidatuta
- Zinegoak ekimenaren barruko zine emanaldia
- Martxoaren 8ko kontzentrazioa

Igerilekuak ordutegi zabalagoa izango du asteburutan

Hobaria zabalduz, langabezian egon edo ikasten ari diren, eta gurasoen etxean bizi diren gazteak 30 urte arte familia abonuaeren barruan sartuko dira



herriarrei kirola egiteko ahalik eta aukera zabalena eta azpiegitura egokienak eskaintzea da Udalaren nahia, eta hori gauzatzeko lanean dihardu Kirol Patronatuaren bidez. Bide horretan, aurrerapauso handia eman zen duela urte eta erdi, igerilekuko eraikina berrituta: ordutik, gimnasio handiagoa eta doakoa dauzka Azpeitiak, sauna lehorra eta bustia ere bai, aldagela berriak, eta astelehen goizetan ere ireki egiten dira instalazioak. Ondorioz, bazkide kopuruak nabarmen egin du gora eta 2016. urtearen bukaeran, 6.350 herriarretik gora ziren Udal Kirol Patronatuko kide. "Hobetzen jarraitu nahi dugu, herriarrek ahalik eta kirol eskaintza publiko onena izateko helburu bakarrarekin. Horregatik, eta urte honetan herriarrek egindako hainbat bileretan jasotako ekarpenen ondoren, datorren urterako hainbat berrikuntza ere aurreikusiak ditugu", adierazi du Estitxu Elduaien Kirol

zinegotziak, eta Kirol Patronatuko lehendakariak. Etengabeko hobekuntza da erronka, baina zerbitzu publikoa dela jakitun, "diru publikoaren kudeaketak eskatzen duen arduraz jokotuta" egiten dutela azpimarratu du Elduaienek.

Honakoak izango dira hobekuntzak:

- **Igerilekuko ordutegia zabalagoa:**
 - Larunbat eguerditan ez da itxiko; beraz, 09:00etatik 20:00etara egongo da irekita.
 - Igandeetan, ordubete gehiagoz egongo da zabalik. 09:00etatik 14:00etara.
- **Langabezian edo ikasten ari diren 30 urtera arteko gazteek, gurasoen etxean bizi badira eta langabezian badaude, ez dute beste bazkidetza bat egin beharrik izango eta familia abonuaeren barruan sartuko dira (orain arte 25 urtean zegoen muga).**

- **Espazioen erabilgarritasun hobea:**

- Udaz geroztik bizikleta gehiago jarri dira gimnasioan, eta luzaketak egiteko gune bat erabilgarri jarri da, behin-behinean.
- Azkeneko solairuko eremu zaharra berrituko da, gune argitsuago eta erabilgarriagoa bihurtzeko helburuarekin.

- **Igerilekuko eraikinean energia aurrezten jarraitzeko proiektu berria garatu eta abian jarriko da.**

- **Informazioa hobetuko da; bai modu digitalean, bai bestelakoetan (@azpeitikoK twitterren eta Azpeitia Kirola Facebooken). Informazio zuzena jaso nahi duenak, azpeitia@kirolak.eus helbidera mezu bat bidali behar du.**

- **Bazkideek ordaindu beharreko kuota bere horretan mantendu da; ez du igoerarik izan.**

300.000 euro banatu ditu Udalak 86 proiektutan, herriko ekonomia indartzeko



Udalak 2016ko Sustapen Planeko 300.000 euro banatu zituen urtea bukatzerako, 86 proiekturen artean, herriko ekonomia indartu eta langabeziari aurre egiteko helburuarekin. Arrazoi desberdinengatik hiru proiektu baztertu ostean, 86 proiektuk jaso dute laguntza; horietatik 22 proiektuk lanpostu berriak sortzeko.

Izan ere, horixe du helburu Udalaren Sustapen Plan propioak, Industrian eta enpleguan eragitea: "Enplegua sortzea da gure helburua, baina kalitateko enplegua, eta hori da gaur egun gure kezka nagusia", dio Agustín Lizarralde Ekonomia Saileko batzordeburuak. Sustapen Planak izandako harrerarekin "oso balorazio positiboa" egin du Udalak. 89 eskaera jaso dituzte, "2013. urtean abian jarri dugunetik gehiena", eta hori seinale ona dela uste dute; "Enpresetara Udalak egindako bisitetan ere nabarmendu dugu enpresek badituztela aurrera egiteko ideia eta asmoak, eta plan honek horiek gauzatzeko aukera eskaintzen die", azaldu du Lizarralde. "Azpeitiak 2016an

izandako langabezia tasaren beherakada nabarmenetik harago, Sustapen Planak azken urteotan izan duen harrera ikusita, ondo ari garela uste dugu. Urtez urte gero eta gehiago dira eskaerak, eta laguntza horien bidez sortzen diren lanpostuak", adierazi du Estitxu Elduaien zinegotziak.

Banaketa

Aurten, Sustapen Planeko 300.000 euroak lau laguntza lerrotan bereizita banatu dira. Merkataritza arloan eta lehen sektorean enplegu sustapena finantzatzeko proiektuetarako 49 eskaera onartu dira; horietatik 22 eskari kontratazio berriak finantzatzeko, eta 11 Alde Zaharrean jarduera berriak ezartzeko.

Industria proiektu estrategiko edo berritzaileen bitartez enplegu sustapena finantzatzeko 14 proiektu aurkeztu dira, eta alor honetan, besteak beste, Azpeitian

kokatuko den enpresa garrantzitsu berri bat lagundu da.

Ekintzailetasuna sustatuz enpleguaren sorrera bultzatzeko 22 eskaera jaso dira, eta ondorio bezala enplegu sorrera duten 2 proiektu sozial ekintzailek ere egin dute eskaera.

Aurten lagunduko diren proiektuak kontuan hartuta, Sustapen Plana abian jarri zenetik, 272 proiektu lagundu ditu Udalak ekonomia indartu eta Azpeitian enplegua sortzeko.

Sustapen
plana abian jarri
zenetik 272 proiektu
lagundu ditu Azpeitiko
Udalak, ekonomia indartu
eta langabeziari aurre
egiteko helburuarekin

2017an, baliabide gehiago

2017ko aurrekontuak abenduan onartu zituen Udalak eta hasi berri den 2017an Sustapen plana ere indartu egingo da eta 350.000 euro bideratuko dira: "Aurten eskaerak asko igo dira eta plan honek emaitzak ekartzen dituela ikusita hurrengo urterako diru poltsa handitzea erabaki dugu.", bukatu du Elduaienek.

80 urtetik gorako herritarren bizi baldintzen inguruko ikerketa egiten ari da Udala



tsailaren hasieratik, Azpeitiko Udala, Baigera elkartearekin elkarlanean 80 urtetik gorakoen bizi baldintzen inguruko azterketa egiten ari da. Horretarako, Naroa Otaegi eta Aitor Beloki Udal langileak 80 urtetik gorako 552 herritarrekin harremanetan jartzen ari dira, adostutako egun eta orduan beren etxean inkesta bat egiteko.

Azpeitiko Udala eta Baigera jubilatuko elkarteak urteak daramatzate adineko herritarren inguruko egitasmoak elkarlanean lantzen, eta iazko udaberrian indartu zuten elkarlanean, pauso berriak ematen ari dira. Elkarlan horren helburua da herriko jubilatuen bizi baldintza aztertu eta beharra duten horien bizi baldintzak eta bizi kalitatea hobetzea. CIS-ek egindako inkesta batek azalerazi zuen bazeudela herrian baldintza okerragoetan bizi ziren herritarrek, eta lehen pauso gisa Udalak eta Baigerak Udalak kolektibo horri eskaintzen dizkien diru-laguntzen inguruko informazioa zabaltzeko ahalegina egin zuten. Bide horretan, jubilatuko guztiei etxera iritsi zitzaizen diru-laguntzen berri eskuorri batean bilduta.

552 herritarrengana joango da Udala nola bizi diren jakin era zein behar dituzten jakiteko asmoz

“Hasitako ibilbide horretan sakontzea da orain emango dugun pauso honen helburua. 80 urtetik gora izan eta inolako laguntzarik jasotze ez duten 552 herritarrekin jarriko gara harremanetan nola eta zein baldintzatan bizi diren jakiteko”, adierazi du Estitxu Elduaien Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak. Jubilatuen gero eta kolektibo handiagoa izanik, Udalarentzat sektore garrantzitsua dela azpimarratu du Elduaienek.

Zahartzarora, datutan

Azken hamar urtean, Azpeitian 80 urtetik gora dituzten herritarren kopuruak gora egin du. 2006an biztanleriaren %4,11 bazen, 2016an %6,30koa izatera pasatu zen.

Gaur egun, 80 urtetik gorako 925 azpeitiar daude. Horietako 726, noiz edo noiz Udalaren Gizarte Zerbitzuetara joan izan dira; horietatik 353 lagunek ez dute presztaziorik jasotzen. Beste 199 inoiz ez dira joan Gizarte Zerbitzuetara eta ez dute inongo laguntzarik jasotzen. Laguntzarik jasotzen ez duten 552 lagun horiekin kontaktatu eta duten bizi mailaren berri izatea da ikerketaren helburua.

Behin nola eta zein baldintzatan bizia diren jakinda, helburua da behar duten horien bizi kalitatea hobetzea bermatzea: “Inoiz Udalera etorri ez diren pertsona horiekin harremanetan jarri eta zein behar dituzten edo laguntzarik behar duten jakin, eta horien berri ematea da helburua”, adierazi du Elduaienek.

Parte hartzerako deia

Baigera elkarteke Joxe Mari Iturriak 80 urtetik gorako herritarrek inkestan parte hartzera animatu nahi izan ditu: “Inkesta honetan kolaboratzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Ikerketa honen emaitzak norbanakoen kalitatean eragiteaz gain, jubilatuko denon onerako dela uste dut; denon bizi kalitatea hobetzea baita helburua”, azaldu du.



80 herritarrek jaso zuten etxebizitza alokatzeko udal laguntza, 2016an

Urtez urte gero eta herritar gehiago dira etxebizitza alokatzeko udal laguntza eskatu eta jasotzen dutenak. Udalak laguntza horien bidez etxebizitzak alokatzeko beharra izan eta merkatuko prezio altuak direla-eta ezin duten kolektiboak laguntzea du helburu: "Urtez urte gero eta jende gehago ari da laguntza horiek eskatzen, eta gero eta kontratu gehiago ari gara laguntzen. Beraz, laguntzak beharrezko eta kasu askotan ezinbestekoak direla ikusten dugu", adierazi du Josu Labaka zinegotziak.

Laguntzak beharrezko diren bezala, alokairua sustatu eta etxebizitza babestuen alde egiten duen etxebizitza politikak ere ezinbestekoak direla gaineratzen du Leire Goenaga zinegotziak: "Alokairurako laguntzak emateaz gain, etxebizitza hutsak merkatura ateratzeko balio izan duela nabarmena da. Etxe hutsetatik abiatuta egin behar ditugu etxebizitza politikak, eta laguntza horiekk etxe hutsei Ondasunen Higieziaren Zergan ezarritako erreka goarekin batera eraginkorrak direla uste dugu". Datuek erakusten dute etxebizitza beharra badela. Zenbatekoa eta zein motatako etxebizitzak behar diren abian den etxebizitzaren inguruko azterketak azalduko duela aipamarratu dute.

Eskaerak goraka

2014. urtean, 47 lagun izan ziren laguntza jaso zutenak; 2015ean, kolektibo berrietara zabaldua, 68 lagunek jaso zuten laguntza; eta, ia, 80 herritar izan ziren laguntza horren onuradunak.

Laguntza horiek urtez urte, herrian behar handiena duten kolektiboek zabaltzen joan dira. Hala ere, 18 eta 35 urte bitarteko gazteak dira laguntza jasotzen duten gehiengoak. Laguntza eskatu duten 86 lagunetatik 74 dira kolektibo horretakoak; 70 urtetik gorako 5 lagunek eta 7 banandutakoak ere eskatu dute laguntza.

Arrazoi ezberdinak tarteko, sei eskaera baztertu behar izan ditu Udalak. Ainara Larrañaga Gazteria zinegotziaren hitzetan, gazteen arazoetako bati aurre egiten laguntzeko bultzada da hau:

Laguntza jaso duten
86 lagunetatik
74 gazteak dira, 70
urtetik gorakoak 5 eta
banandutakoak 7

"Jakina da gaur egungo merkatuak eta gazteen langabezia tasa altuak eta lan-baldintza eskasek zail egiten dutela gazteek etxebizitza duina izateko aukera. Laguntza honen helburua, batez ere gazteei, etxebizitza alokatzeko aukerak eskaintzea da hasieratik, eta eskaerak erakusten dute gazteen behar hori", adierazi du.

%42a Alde Zaharrean

41 lagunek lehen aldiz eskatu dute laguntza, bigarrezkoz 26rek eta hirugarrenkoz 19k: "Ikusten ari gara urtez urte jende berriak eskatzen duela laguntza, eta urtez urte kontratu berriak laguntzen direla", adierazi du Goenagak. Diruz lagundu diren eskaeren %42,17a Alde Zaharrean kokatutako etxebizitzak alokatzeko izan ziren ia. Oinarrien arabera gune horretan kokatzen diren etxebizitzek hilean 50 euro gehiagoko laguntza jasotzen dute, gainera.

Laguntza horiez gain Udalak bere jabetzan dituen Babes Ofizialeko eta tasatuko beste 27 etxebizitza ditu alokatuta, gaur egun.

Gainera, Azpeitiko Udalak 2005etik abian duen Bizigune programari esker beste 52 etxe ere alokatuta daude herrian.

Kultura Azpeitiaren indargune eta marka izateko bidean

2016an, 180 ekitalditik gora eta 35.000 ikus-entzule baino gehiago; 2017ko Egutegi Bateratuaren hitzarmena aho batez onartu da Udalean



Une gozoak bizi ditu kulturak Azpeitian. Horren isla dira iaz kulturak gu-rean utzi zituen datuek. Azken urteotako egiteko modu berriek eta Udalak, Kultur Mahaiak eta Kulturaz kooperatibak indarrak batuta kultur eskaintza “orekatu eta indartsua” posible egin du. Josu Labaka Kultur zinegotziaren hitzetan, hitzarmen horrek, kultur taldeen dinamikak, abian jarritako Sorkuntza Bekak eta Dinamoak “oso balorazio positiboa” izatea eragin du. “Urtez urte goraka doazen datuak”, dira kulturak eskaintzen dituenak, eta “bada ordua egiten den guzti hori balioan jartzeko”. Gipuzkoan eta Euskal Herrian, hiributuetatik aparte, ez da tamaina honetako dinamika eta eskaintza duen heririk.

Urte emankorra

2016an, guztira 35.263 ikus-entzule izan ditu kulturak herrian, 180 ekitaldi eskaini dira 2015ean baina %24 gehiago, eta ikus-entzuleen datua ere inoizko handiena

180 kultur ekitaldi baino gehiago izan ziren 2016an; horietatik 121etan Azpeitiko sortzaile eta eragileak izan ziren protagonista

izan da; 2012an, Sanagustin ireki zen urtean 16.000 ikus-entzule izan ziren bertan, eta jendearen erantzuna “urtez urte progresiboki gora” doala adierazi du Xabier Aranbarri Kulturazeko kudeatzaileak.

Euskarazko kultur sorkuntzaren eta euskal kulturaren gune erreferentzial izatea da Azpeitiko kultur mugimenduaren helburua, eta datuek urratsak ondo eman direla adierazten dute: iazko ekitaldien %90a, izan dira euskal sortzaileen lanak.

Nabarmena izan da, Azpeitiko sortzaileen eskaintzak eman duen gorakada; 180tik 121 izan dira herriko sortzaile eta eragileak protagonista izan dituztenak. “Kultura sustatzen dugu, baina orekatua, gurea balioan jarritz, euskarazkoa bultzatuz eta ikusleen nahietara egokituz. Datuek diote ondo ari garela”, azpimarratu du Labakak.

Egutegi Bateratua, eraginkorra

laz sinatu zen lehen aldiz Egutegi Bateratuaren hitzarmena, eta datuak eskuan, egiteko modu berri horiek “oso potiboak” dira Labakaren ustez. Hala, 2017ko hitzarmena udalbatzan onartu berri dute: “laz ez genuen aho batez onartu. Urte osoan lanketa berezia egin dugu kultura batzordean eta egindako lanak emaitzak eman ditu, eta aho batez onartu dugu aurten. Lorpen handia da guretzat”, gaineratzen du Labakak. 300.000 euroko aurrekontua izango du Egutegi Bateratuak eta 65.000 euroko ekarpena egingo du Udalak.



Aisirako izatetik bizi-kalitatean eragiteko tresnara

Antxieta Musika Eskola, Kulturaz eta Liburutegiaren bidez ohiko kultur eskaintzaz gozatzeko zailtasunak dituzten kolektiboek zuzendutako kultur ekintzak ditu abian Udalak

Kultur eskaintza zabala da Azpeitiakoa. Ez dago dudarik. Hala ere, herritar guztiek ez dute posible izaten kultura eskaintzen den lekuetara joatea, edo kolektibo zehatz batzuek beraiei zuzendutako eta egokitutako eskaintza behar dute.

Bide horretan, Azpeitian hainbat kolektibori ere eskaintzen zaie kultura sortzeko eta kulturaz gozatzeko aukera. Azpeitiko Udalak bultzatuta eta lagunduta. "Kultura aisialdirako izatetik herritarren bizi kalitatean eragiteko tresna gisa ulertzeko pausoa ematen ari gara, eta aberasgarria da hori erabat guretzat", azaltzen du Ainara Larrañaga Kultur zinegotziak.

Eskaintzarik berriena Juan Antxieta Musika Eskolak ikasturte honetan abian jarri

Ohiko kultur eskaintzaz gozatzeko zailtasunak dituzten hainbat kolektiborentzat, herriko eragileekin elkarlanean hainbat proiektu jarri ditu Udalak abian

tako da. Musikaren bidez, musika instrumentuak ezagutuz, erritmoari jarraituz eta abestien letrak ikasiz eta gogoratuz Antxieta etxeko, Eguneako zentroko eta San Martin egoitzako 37 laguni autoestimuan eragin eta bakardadearekin hausteko ahalginetan ari dira.

lazko udaberritik zinema ere eskura dute

San Martin Egoitzako bizilagunek. Udalak, Kulturaz eta San Martin Egoitzak elkarlanean antolatuta. Bertan, adineko pertsonentzako egokiak diren filmak eskaintzen dituzte tarteka. Hasierako asmoa egoitzakoei zinea eskaintzea bazen ere, ideia aldatzen joan da, eta gaur egun herritar orori irekitako filmak eskaintzen dituzte. Aisialditik harago, hausnarketarako tartea ere sortu nahi dute familiekin, bertako langileekin eta herritarrekin.

Musika eta filmeez gain, irakurtzeko erraztasunak ere eskaintzen zaizkie Antxieta etxeko eta Eguneako zentroko kideei. Hala, asteen behin irakurketa errazterako bi talde joan ohi dira liburutegira. Bertan, letra handiko eta hiztegi errazeko liburuak taldean irakurtzen dituzte ordubetez, liburutegiko teknikariekin gidatutako saioetan.

Etorkizuneko proiektuak abian jartzeko aurrekontuak

Abenduan aho batez onartu zituen 2017.urterako aurrekontuak Azpeitiko Udalak; 20.031.082 euroko aurrekontu orokorra izango du, iaz baino %5 gehiagokoa



ahoz batez onartu ziren abenduko plenoan 2017.urterako aurrekontuak. Eneko Etxeberria alkateak azpimarratzen duenez, “herritarrentzat ona da Udalean ordezkariak duten bi alderdiek babestutako aurrekontuak izatea”. Udal Gobernuak gehiengoan izanagatik akordioetara iristeko duen jarrera eta aurrekontuak beste alderdiei eta herritarrei irekiak izateak duen garrantzia ere adierazi nahi izan du.

Estitxu Elduairen Ogasun batzordeburuak Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioaren inguruko xehetasunak eman nahi izan ditu aurrekontuen

Azpeitiko Udalak pauso bat aurrera egin zuen iaz milioi bat euro gehiagoko aurrekontuarekin; aurten %5 igo du, berriro ere

nondik norakoak ulertzeko: “2017ko aurrekontuetan beste pauso bat eman dugu, eta %5ean igo dugu aurrekontua; guztira 20.031.082,95 eurokoa izango da”.

Hori urte gogorretan, krisi garaian, eginiko kudeaketa onaren eta eraginkorraren ondorioa dela azpimarratu du: “Urteaz urte altxortegiaren garapena hobera doa, eta egoera lasai eta egonkorra dugu ekonomikoki Udalean”.

Egoera on horren adierazgarri dira gerakinaren eta zorraren datu onak. 2011. urtean gerakina 5.800.000 eurokoa zen, eta 2015. urtearen bukaeran, 13.481.000

2017ko aurrekontuak

Azpeitiko Udalaren 2017ko aurrekontu orokorra: 20.031.082,95 euro

Udalaren aurrekontu propioa: 18.564.182,95 euro

Euskara Patronatua: 587.526,35 euro

Udal Kirol Patronatua: 1.365.007,89 euro

Azpeitia Berritzen, SA: 447.400,00

Ogasuna eta kontuak	748.548,14 euro
Hirigintza eta ingurumena	3.053.621,24 euro
Hezkuntza eta euskara	776.706,35 euro
Kultura eta gazteria	832.500 euro
Kirola	847.007,89 euro
Gizartekintza	1.044.400 euro
Langileria eta antolakuntza	5.517.154,23 euro
Festak	495.000 euro
Zerbitzu orokorrak	3.569.823,72 euro
Alkatetza	218.000 euro
Ekonomia, enplegua eta formazioa	1.069.021,38 euro
Parekidetasuna	143.900 euro
Baserriak	248.500 euro
GUZTIRA	18.564.182,95 euro

■ eurokoa. Zoraren bilakaera, berri, alderantzizkoa izan da: 2011. urtean Udalaren zorra 8.600.000 eurokoa zen, eta gaur egun 3.245.000 euroko zorra du Udalak.

Egoera on hori 2017. urteko diru sarrera nagusienetan igoera izatea

Udalaren egoera ekonomikoa asko hobetu da azken urteotan; zorra beheraka doa urtez urte, eta gerakina goraka

aurreikusteak ere eragin du aurrekontuetan goranzko joera hori izatea. "Egoera lasaia eta ona izanagatik, zuzentziaz gastatu eta inbertituko dugu diru-publikoa; orain artean bezala, herritarren beharrei erantzuteko proiektuak garatzen jarraituko dugu", bukatzen du Estitxu Elduaiei Ogasun Batzordeburuak.

Milioi bat, enplegua indartzeko eta beste bat, babes soziala bermatzeko

Ekonomia, enplegua eta formaziorako milioi bat euro

Herritarren beharrei eta arazoei aurre egiteko azken urteotan nabarmena izan da ekonomian, enpleguan eta formazioan Udalak egindako ahalegina. Sustapen plana abian jarria du Udalak eta 2016ko planak ere "izugarizko arrakasta" izan duela azpimarratu du Etxeberria alkateak. Beraz, bide horretan jarraitzea da apustua, Sustapen Ekonomikoa bezalako proiektuak eta laguntzak indartzuz. Emaizak ikusita, eta beharra atzemanda arlo honetan milioi bat eurotik gora inbertituko da 2017an, iaz baino %11 gehiago.

Babes sozialerako beste milioi bat

Gutxien dutenei babes soziala bermatzeko Gizarte Zerbitzuetatik egiten den ahaleginean ere bide beretik jarraituko du Udalak. "Oinarrizko beharrak herritar orok asetuta izan ditzaten lanean segituko du aurrerantzean ere. Bide horretan, diru-laguntza linea berri bat abian jarriko dugu epe motzean", zehaztu du Elduaiei.

Horretaz gain, gero eta hobeto funtzionatzen duen etxebizitzak alokatzeko laguntzak indartu ditzutela ere jakinarazi du.

Gutxien dutenak babestu eta enplegua, formazioa eta ekonomia indartzeko diru-poltsak indartu ditu Udalak

Bost milioi inbertsioetarako

lazitik konprometituta dituen kredituak eta 2017. urteko inbertsioen aurrekontuak kontuan hartuta, Udalak bost milioi izango ditu proiektu desberdinak abian jartzeko

Orohar, sail guztietako aurrekontuek gora egin dutela adierazi du Etxeberria: "Etxebizitzaren alokairurako laguntzetako diru kopurua handitu dugu, Iraurgi Berritzenera eta Urola Erdiko Mankomunitatera bideratzen dugun diru kopurua handitu dugu, kulturara bideratzen dugun diru partida handitu dugu, formaziorako... eta herriko beste zenbait hirigintza proiektu garrantzitsuetarako ere jarri da dirua".

Aurreikusitako hirigintza proiektuen artean, abian dauden eta epe motzean bukatuko direnak daude: San Martin estrata eta Arzubiko bidegorria, Loiolako pasealekua, Nuarbeko geltokia, Etxebeltz ondoko aparkalekua, Salbe auzoko urbanizazioa, Azoka plaza...

Eta 2017an abian jartzea aurreikusitako beste hainbat proiektu garrantzitsu ere baditu Udalak. Hemen proiektuetako batzuk: Igerilekuko zati zaharren eraberritzea eta energia berriztagarriak jartzeko proiektua; ikastexetako patioak eraberritzea, Betharram eraikina berritzeko obrak, Urrestillarako bidegorriaren Azpeitiko Udalarik dagokion zatia (Aldundiarik beste zatia egitea erreklamatzeko jarraituko duela Udalak azpimarratu dute); Nuarben oinezkoentzako pasagunea egitea; Urrestillan Kalebarrena txukuntzea; Esklabetako ondoko berdegunean parkea egitea; Loiolako pasealekuko espaloiak berritzea; Goenako parkea txukuntzea; Alberdienean etxeak egiten dituztenean aparkaleku publiko egitea, plaza oinezkotutakoan galdutako plazak mantentzeko.

Udalak abian jarriko dituen proiektu nagusiak



IGERILEKUA

Duela urte gutxi igerilekua handitzeko obrak egin ziren, baina eraikinaren zati zaharra bere horretan gelditu zen. Azpeitiko Udalak 2017an zati hori berritu eta energiaren kontsumoa murrizteko, efizientziaren aldeko proiektu berritzailea ere jarriko du abian. Milio eurotik gorako aurrekontua izango du eraikina berritu eta energia kontsumoa murrizteko plana aurrera emateko azpiegiturak egitea.



IKASTETXEEN BEHARRAK

Herriko hiru ikastetxeek dituzten beharrei ere erreparatuko die Udalak aurrekontuak egiterakoan. Hala, Betharram eraikina berritzeaz gain, Karmelo Etxegarai ikastetxeko eta Azpeitiko Ikastola Ikasberriko eraikinen haur parkeak berrituko dira, ikastetxeekin adostuta. Parkeak berritzeko aurrekontua 150.000 eurokoa izango da.




URRESTILLAKO BIDEGORRIA

2015. urtean sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azpeitiko Udalak bi herriguneak lotuko dituen bidegorria egiteko hitzarmena. Hala ere, Aldundiak azken urteotan ez du proiektu horretara dirurik bideratu eta ez da aurrerapenik egin. Hala ere, Azpeitiko Udalak bere zatia egiteko konpromisoa du eta proiektua ere egingo du. 2017an, egingo du dagokion zatia.



APARKALEKU PUBLIKOA

Gaur egun Alberdienean dagoen aparkaleku publikoa mantendu asmoz, Azpeitiko Udalak gune horretan egingo diren etxebizitzaren azpiko solairu bat erositu du. Han gaur egun dauden aparkaleku publiko kopurua mantenduko litzateke, eta hala, Alde Zaharrera autoan etortzea arazo ez izatea lortu nahi da.



Auzoetako eta arlokako herri proiektuak, 'Denon artean'

Azpeitiko Udalak bi helbururekin egin zuen 'Denon artean' prozesu parte hartzailea: alde batetik, 2017ko aurrekontuen bidez herritarren beharrei erantzuteko, eta ekarpenak, ideiak eta proposamenak kontuan izateko; eta, beste aldetik, 2015-2025 Plan Estrategikoaren baitako zenbait arlo eguneratu eta beste zenbaitetan zehaztutakoa oinarritzat hartu eta gaian sakundu eta egokitzeko ere erabili dira bilerak.

Orokorrean, "balorazio positiboa" egiten du Josu Labaka parte-hartze zinegotziak: "Urtero herritarren parte hartze bidez

'Denon artean' prozesuaren baitan 2017ko aurrekontuak osatzeko eta 2015-2025 Plan Estrategikoa osatzeko ekarpenak jaso dira

egiten den prozesua da 'Denon artean', baina Udaletik urte osoan

lantzen den kontua da parte hartzea", azaldu du. Gogorarazi du herriko arlo desberdinetako eragileekin mahaien bidez edo egiten dituzten beste hainbat bileraren bidez harreman zuzena dutela: "Eragileen eta Udalaren arteko zubiak eginda daude, elkarlanean hamaika proiektu ditugu abian eta kirol edo kultura mahaiekin ere sintonia onean ari gara elkarlanean", adierazi du.

'Denon artean'-en gehienbat, herritarrek beren eskaera edo ekarpen zuzenak egiten dituztela aipatu du Labakak: "Herritarrei begira egin ohi dugu azken urteotan prozesua. Normalean, eskaera



zehatzak egiten dizkugute, eta aurten ere horrela izan da". Orain eskaerak aztertzen ari dira, eta ahal den heinean arazoak konpondu eta ekarpenak aztertzen ari dira.

Auzoak, erronka

Prozesu horren baitan, erdigunetik kanpo gelditzen diren auzoei indar berezia jartzen zaie: "Urtero joaten gara. Aurreko urteko eskaerei errepasoa ematen diegu, zer aurreratu den jakiteko, eta eskaera berriak apuntatzen ditugu", azaltzen du Aitor Bereziartu zinegotziak. Hala ere, auzoetako arazoak "arazo sakonei lotutakoak" izan

Auzoetako arazoak sakonak izanagatik, herrigunetik kanpo bizi diren herritarren oztupoak konpontzen segitzeko konpromisoa du Udalak

ohi direla azpimarratu du. "Askotan arazoari irtenbidea bilatzea edo ematea zaila izanagatik, guk auzotarrekin lanketan

segitzeko konpromiso sendoa dugu", adierazten du.

Ekonomia eta enplegua lehentasun

Herritarrek eskaera zehatzak egiteko baliatzen dituzte postontzi edota bilerak, baina kezka eta buruhausteak gai handiek ematen dizkiete: ekonomiak eta enpleguak. "Herritarren kezka nagusiak horiek dira, herriko ekonomia eta enplegua, enplegu duina. Eta Udala ere azken urteotan bi arlo horiek lantzeko baliabideak eta indarra egiten ari da", adierazi du Aitor Bereziartuak. Bide horretan, Udalak eta herritarren lehentasunek bat egiten dute.



Aisialdirako parke berdea loratuko da udaberrian, Esklabak eta Olatz artean


18.000 metro koadroko lur eremuan, bertako baliabide naturalak, ura, zuhaitzak, lurra... erabiliaz egokituko dute parkea udaberriarako

azpeitiko Udalak Izarraizko atea izango den parkea eraikitzen hasi da. Herriaren lur eremu publikoak erabilgarri jarri, berdegunea babestu, aisialdirako herritar ororentzako gunek bilakatu eta Izarraitzerako sarrera duin bilakatzea du helburu. "Udalaren jabetzako eremu berde handia dugu gunek horretan, eta herritarren erabilerarako egokitu nahi izan dugu. Hutsik zegoen berdegunea zen, eta

Udalaren jabetzako eremuan 100 zuhaitzetik gora landatuko dira eta harria, ura, lurra.... izango dira Izarraizko parkeko protagonistak

herritarren aisialdirako gunek bertako baliabideak erabiliz egokituko dugu", adierazi du Josu Labaka zinegotziak.

Parkearen proiektua Lur paisajistak enpresak egin du, eta Iñigo Segurola paisajista izan da proiektuaren arduraduna. Bere ustez, leku hori berdegune mantentzeak garrantzia handia du: "Bere garrantzia du berdegune hau mantentzeak. Guk diseinatutako



Etorkizun
laburrean, parkea
Izarraitzerako mendi
ibilbide desberdinetarako
sarrera izate
Lagun Onak Mendi
Bazkunarekin
harremanetan da
Udala

da". Josu Labakak gunee horretan ere etxebizitzak eraikitzeko tentazioak izan direla gogoratzen du: "Urte askoan hemen ere etxeak eraikitzeko tentazio ugari izan dira, baina guk herritarrentzako parke publikoa egiteko apustua egiten dugu".

parkea bertako baliabide naturalak erabiliz egingo dugu: lurra, ura eta harria, batez ere. Bertan dagoena erabiliz moldatuko dugu; lurra mugituz, ura azaleratuz...". 18.000 metro koadroko lur eremu horretan, 60 Haritz eta Pago, 30 Sahats-negarti, 25 Astigar eta hainbat Artea ere landatuko dira. Guztira, 100 zuhaitzetik gora. Horietaz gain, fruitu arbolentzako eremua ere egongo da.

Zuhaitz artean paseatzeko hainbat bide ere egingo dituzte eta urak ere presentzia nabarmena izango du: "Eremu honetan negu partean, batez ere, ur asko pilatzen da eta parkean ere urak garrantzia berezia izango du", adierazi du Seguiolak.

Parkearen bi zonaldeetan izango da ura. Alde batetik, kare-harriz inguratutako

plazatxoan ur txorrotadak izango dira, freskatzeko eta jolasteko baliogarriak izango direnak. Ondoan, hondarra botako da eta beste gunee bat osatuko da. Beste aldetik, berriz, gaur egun ur asko pilatzen denean ura ematen duen kanala aprobetxatuz errekatxo bat azaleratuko da. Sakonera gutxiokoa, baina herritarrentzat hankak freskatzeko adina balioko duena.

Horretaz guztiaz aparte, baliabide naturalekin osatutako umeentzako atondutako gunee ere izango da.

Labakak eremua berdegune mantentzearen garrantzia ere aipatzen du: "Duela ez horrenbeste urte, Aranetik Loiolara arteko bi aldeak berdeak ziren, baina gaur egun Esklabetako inguru horretaz gain, berdegune gutxi gelditzen

Izarraitzerako sarrera

Uda bitartean egingo diren landaketa eta egokitzapen lanek segida izango dute: "Parkea egokitzen hasi gara, baina etorkizunerako beste proiektu eta asmo batzuk lantzen ere ari gara, bitartean.

Aurrera begira, Lagun Onak Mendizale elkartearekin Izarraitzerako atea izateko lanketa egiten hasiak dira: "Izarraitzerako sarrera duina izatea nahi dugu parke hau. Ez Xoxotera igotzeko soilik. Izarraitzek ematen dituen aukerak ikusirik ibilbide desberdinak egiteko aukera landu nahi da", adierazi du Labakak.

Adin eta sasoi desberdina duten denetza moduko ibilbideak osatu nahi dira, zailtasun eta iraupen desberdinetakoak. Horretaz aparte, adinekoek kirola egiteko makinak jartzea ere aztertuko duela aurreratu du Udalak.



Landa eremuko herritarren irisgarritasuna hobetzeko neurriak

azpeitiko Udalak, azken urteotan, landa eremuko baserrietarako bideak hobetzeko diru-poltsa jarri du urtero, eta 2016an ere horrela izan da. Hala, aurtén 200.000 eurotik gorako inbertsioa egin du baserri bideak egin edo konpontzeko. Aurrekontuetan 75.000 euroko diru-poltsa jarri bazen ere, baserrietarako hainbat bide egokitzeko eta bideetako segurtasuna bermatzeko beharra zegoela ikusita, esfortzu handiagoa egitea erabaki du Udalak. “Landa eremuko bide guztiak egoera onean izateko lan handia egiten dugu, horrek eremu horietako herritarren bizi kalitate hobetzen duelako”, adierazi du

Josu Labaka zinegotziak. Landa eremuko bide sare egokia izateak, baserrietako jarduera ekonomikoa laguntzen du, eta Udalak lehen sektorearen sustapenaren estrategiaren baitan kokatzen du ahalegin hori. Hala ere, udalek lan

horietarako jasotzen dituzten laguntzak “oso mugatuak” direla ere salatu nahi izan du Labakak. Azken hilabeteotan, adibidez, Elosiaga auzoko Arizmendi baserrirako bidean bionda jarri da,

**Landa eremuan
120 kilometro baino
gehiago ditu Udalak
hormigoiz eginak; 2017an
ere ohiko diru-poltsa
jarri du Udalak**

segurtasuna bermatzeko; Garai baserriko arditegira ur hornidura sarea eraman da; Matxinbentako Largarate behekoa baserrira ramala egiteaz gain, bidean zeuden zuloak tapatu eta konpondu dira; Izarraitz auzoko Urbigaindik

gorako bidea hormigonatu da; eta beste hainbat bide malkartsutan biondak jarri dira segurtasuna bermatzeko. “Azken urteotan landa eremuko etxe askotarako bideak egin edo konpondu ditugu, eta bide horretan segitzea aurreikusten dugu hurrengo urteetan ere”, adierazi du Josu Labaka zinegotziak.

Landa eremuko 120 kilometro baino gehiago daude hormigonatuta, gaur egun: “Bideak egiteaz gain mantenu lanak ere garrantzitsuak dira herritarren segurtasuna bermatzeko, eta horretan ere lan handia egiten dugu”, azaltzen du Labakak. Hala, urtero, 40.000 euroko diru-poltsa jarri ohi du lan horietarako. Bide horretan, 2017an ere diru-poltsak jarri ditu landa eremuko bide sarea konpondu eta mantentzeko; besteak beste, 100.000 euro bideak konpontzeko, 40.000 euro mantenu lanetarako eta 4.000 euro postontzietarako.

Oinezkoentzako pasabide berria Landeta auzoan



Urtarrilaren bukaeratik aurrera, oinezkoentzako pasabide berria izango da Landeta auzoan. Inguru horretan, errepidearen bi aldeetan denda eta komertzio berriak ireki dira, eta biribilgurearen alde horretan bakarrik falta zenez oinezkoentzako pasoa egitea, lanak egitea erabaki zuen Udalak herritarren segurtasuna bermatzeko. Duela zenbait aste hasi ziren pasabidea egokitzeko obrak, eta azto margotu zuten oinezkoentzako pasabidea errepidean. Bihartik aurrera semaforoak ere martxan izango dira. Oinezkoek errepidea gurutzatu nahi dutenean botoia sakatu eta oinezkoen semaforoa epe motzean jarriko da berdean. Lan horien aurrekontua 30.000 euro ingurukoa izan da.

Bi etxe eraitsi ditu Udalak Madalena auzoan

madalena auzoan jabetzan zituen bi etxebizitza eraitsi berri ditu Udalak: ermitari pegatutako eta ondorengo etxebizitza Duela urtebete inguru, ermitaren bestaldean, jabetzan zuen beste etxebizitza ere eraitsi zuen.

2006an Madalenako Baseliza monumentu historiko-artistiko izendatu zen. Ordutik, babestutako eraikina da ermita bera. Izandapenaren berri emateko Gipuzkoako aldizkari Ofizialean bertan ere aipatzen da, ordea, ermitaren alde banatan dauden eraikinak "ez direla erabat egokiak edo ez datozela bat eraikinarekin". Horren ildotik, babes araudiaren bi aukerak zerrendatzen ditu iragarkiak: eraikinak eraistea eta berririk ez eraikitzea; edo orduko egoerari eustea, soilik sendotze lanak edo lehenagoratzekoak baimenduta, itxitura-hormak eta elementu inguratzailan atxikiz. Azken urteotan etxebizitza horien egoera okertzen ari zela ikusirik Azpeitiko Udalak ermitaren ondoan egoera txarrean zeuden hiru eraikinak erosi eta horiek eraisteko plana jarri zuen abian.





Gizon eta emakumeek, bakarka edo konpainian, sexu eta bikote zailtasunak izaten dituzte bizitzako garai desberdinetan. Horiei irtenbideak emateko, jakinminari erantzuteko eta genero estereotipoetan oinarritutako harreman sexualak gainditzeko, Azpeitiko Udalak eskura jarri du aholkularitza gune **profesionala, konfidentziala eta doakoa** osasun zentroen zerbitzu osagarri gisa.



ZER NAHI DUZU?

- 1.- Kontaktu intimorako modu berriak ezagutu.
- 2.- Zeure gorputza ezagutu. Orgasmoak sentitzen ikasi.
- 3.- Jeloskortasunak sortutako gatazka egoerei aurre egin.
- 4.- Aldizkako eta zehaztu gabeko bikote harremanak ku-deatu.
- 5.- Bide erotiko berriak aurkitu, errutinatik eta desira ga-beziatik atera.
- 6.- Menopausiak sortutako aldaketa eta gogo berriei eran-tzuna eman.
- 7.- Jatorri ezezagun eta argirik gabeko ondoeza garaia atzean utzi.
- 8.- Jakin-min erotiko ezberdinei bide eman.
- 9.- Zure klitoria zein beste batena *gidatzeko karneta* atera.
- 10.- Nahi baino azkarrago edo nahi baino beranduago ger-tatzen diren isurketa egoeretan kontrol gehiago lortu.
- 11.- Bikote eztabaidak gutxitu, zauriak sendatu eta gainditu.
- 12.- Sarketa desberdinetan plazera sentitzera iritsi.
- 13.- Lagunduriko ugalketa egoera baten aurrean oreka ero-tikoa aurkitu.
- 14.- *Armairutik ateratzeko* edota askatzeko laguntza lortu.
- 15.- Norberaren erakargarritasuna handitzeko eta bikote harreman bat hasteko gaitasuna sustatu.
- 16.- Gaixotasun larri baten ondoren edo gaixo egon bitar-tean bizitza erotikoa berreskuratu.
- 17.- Ereizio gaitasuna suspertu.
- 18.- Seme-alaben sexu-hezkuntzan aholkularitza jaso.
- 19.- Seme-alaben jaiotzaren ostean, esperientzia erotikoak indarberritu.
- 20.- Zerrendatu ez dugun beste hainbat bizipen pertsonal anitzei buruz galdetu.